

4.2. Gaiaren lanketa

> Ipuin berri bat sortzen



Kaixo, lagunak!

Zer moduz? Zenbat ikasi duzuen!

Txano Gorritxoren ipuina landu duzue eta ulermen ariketak egin dituzue. Horretaz gain, hitz berri mordoa ikasi dituzue, baina, oraindik, garrantzitsuena geratzen zaizue: ipuintxo bat idaztea.

Ez kezkatu ipuinak nola idatzi jakiteko gauzatxoak bidali dizkizuet-eta.

Gainera, ez daukazue zertan ipuin bat hasiera-hasieratik idatzi, beste ipuin batetako ideiak hartu eta zuen erara kontatu dezakezue. Nik Txano Gorritxoren ipuin berri bat idatzi dut; bidali dizuet. Zuek ere zuen Txano Gorritxoren bertsio berria idatz dezakezue.

A! eta ahaztu aurretik: Gorritxok ere lantxo bat eman dit zuentzat. Bere buruaren aurkezpentxo bat grabatu du eta nik galdera batzuk prestatu ditut zenbat ikasi duzuen ikusteko.

Momentuz hori zen esateko nuen guztia.

ONDO PASA LAGUNAK!

JOXE